## Enpresa-sortzaile profila

1 tresna

### Testa egitea

Galdeketako galdera bakoitzari modu indibidualean erantzun iezaiozu. X batekin marka ezazu zure ezaugarri pertsonalen arabera egokiena iruditzen zaizun erantzuna. Erantzun bakoitzak 1etik 5era bitarteko balioa du, baiezkoari ala ezezkoari gehiago hurbiltzen zaion.

### Testa balioztatzea

Erantzun bakoitzean lorturiko emaitzak batu eta alderatu zure puntuazioa ondorengo baremoekin:

- Zure puntuazioa 90 puntu baino gehiagokoa bada, alderdi horretan behintzat, abiapuntu ona duzu.
- Zure puntuazioa 60 eta 90 punturen artean badago, abiapuntu ona duzu, baina argi dago beste alderdi batzuk erabili beharko dituzula indartzeko.
- Zure puntuazioa 60 puntu baino gutxiagokoa bada, bi aldiz pentsa ezazu jarraitu baino lehen. Agian enpresa bat sortzea ez da aukerarik onena.

| | Bai 5 | 4 | Erdizka 3 | 2 | Ez 1 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Ideia berri eta desberdinak ditut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 2. Egoera berrietara ondo egokitzen naiz | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 3. Ikusmina eta intuizioa ditut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 4. Arriskatzea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 5. Zerbait interesatzen bazait, egin egiten dut nahiz eta buruhausteak eman | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 6. Zerbait interesatzen zaidanean buru belarri sartzen naiz | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 7. Gauza berriak probatzea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 8. Nahi dudana lortzeko sakrifikatzeko gaitasuna dut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 9. Arazoak konpondu beharreko erronkak dira | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 10. Kolpe latzak jaso eta gero, erraz etortzen naiz neure onera | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 11. Ez zait axola bakarrik egotea | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 12. Nigan konfiantza dut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 13. Positiboa naiz (gauzen alde ona ikusten dut) | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 14. Gauza berriak ikasteko gai naiz | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 15. Nire erroreetatik ikasten dut (positiboki) | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 16. Nire ideiak argi ditut eta ez ditut maiz aldatzen | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 17. Egoerak kontrolpean edukitzea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 18. Ideia arruntak baztertzen ditut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 19. Etorkizunean pentsatzea eta nire bizitzarekin planak egitea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 20. Ez zait ahalegina axola ideia batean sinisten badut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 21. Antolatzeko eta agintzeko gai ikusten dut nire burua | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 22. Osasuntsu nago | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 23. Nire ideiak saldu eta besteak konbentzitzeko gaitasuna dut | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 24. Lan egitea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |
| 25. Gauzak ondo egitea gustatzen zait | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ | ◯ |